



→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 39. atala

DATA: 2025/04/04

GUREAN

DATORREN ASTEAN, IRTEERAK

Datorren astean, gure ikasleek irteera berezia egingo dute. HHko familiak egun pasa egingo du Hernialdean. LHkoek hainbat txoko aukeratu dituzte: Beizama, Allo eta Basabere. Ikasle horiek gaua patzera joango dira eta ez dira bakarrik. DHBko familiakoek ere plan bera dute agendan: batzuk Sobronera doaz, beste batzuk Lasturrera eta besteak Elizondora. Handienak, DBHko 4.mailakoak, alegia, Jacara doaz aste osoa. Euskaraz bizitzeko, beraien areko harremanak sendotzeko eta balioak lantzeko aitzakia da. A! Eta aholku bat, mugikorrek eta erloju digitalak ez dira beharrezkoak irteeretan.



GURE INGURUAN

“ARIZONA” ANTZERKIA

NON: JUANBA BERASATEGI - DONIBANE
NOIZ: APIRILAK 6, 19:00ETAN

Georgek eta Margaretek beren mugak defendatu behar dituzte. Bizilagunak hor daude, zelatan, ahalik eta deskuidurik handienean gurutzatzeko zain. Baina, Margaret galdera gehiegi egiten hasten denean, komedia musikala, bere bizitza zena, tragedia basati bihurtzen da. Arizona ez dago hain urruti. Arizona hemen dago, Ceutan, Melillan, gure hiri bakoitzean, gizaki batek bizitza hobea lortzea eragozteko altxatzen den harresi bakoitzean.

Sarrera: 11 €



URDINDUZ

NON: TOLOSA
NOIZ: APIRILAK 6



Apirilaren 6an tradizio bihurtu den URDINDUZ ibilaldi solidarioa ospatuko dute Tolosan. Helburua gizartean Autismoaren Espektroko Nahastea (AEN) ikusgai egitea eta nahaste horren inguruan kontzientzia piztea da. Ibilaldia goizeko 11:30ean hasiko da Tringuloan eta toki berean amaituko da festa giroan.